ASTEKARIA | 2014ko otsailaren 7an | XVII. urtea | USURBIL | 561. zenbakia | www.noaua.com
TOKIKOM

# noaua

Ikurrina zintzilikatzeko deia egin du Udalak

Landetxe, ostatu edo hotelean lo egiteagatik, %15eko deskontua txotx garaian

Erdi Aroa, Inauteri Festako gaia



# Tximelaren bertsoak

## Otsailaren 16an Sutegin, Joseba Tapiaren eskutik







# Tapak eta aurkibideak prest




**Agur esan diogu 2013 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2013ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



## Albistea iruditan

# Lurjausia, Urkamendi eta Imindos lotzen dituen bide ondoan

Berriro. Oso denbora gutxian, lurjausi berri bat eman da Urkamendi eta Iarbe lotzen dituen bidean behera. Aurreko ostegunean gertatu zen, arratsalde partean. Horren ondorioz, Urkamendi eta Imindos lotzen dituen bidea erdi itxirik geratu zen. Udal teknikariak ostiral goizean izan ziren bertan, egoera aztertzen eta hartu beharreko neurriak baloratzen.

**Azaroan, beste bi**

Azaroaren erdialdean, beste lurjausi bat eman zen inguru horretan bertan. Horren ondorioz, Usurbil eta Aginaga goia lotzen dituen bidea itxi egin behar izan zuten.

Handik gutxira, Eguzkitza eta Urdaira artean beste lurjausi bat izan zen. Ez zuen errepiderik harrapatu baina oinezko herri bide bat kaltetu zuen.



**Urkamendi eta Imindos lotzen dituen bidea erdi itxirik geratu zen aurreko ostegun arratsaldean.**
**Argazkia: Jakoba Errekondo.**

## Laburrean

### Nerabeen sexualitateari buruzko ikastaroa

Sexu Aholkularitza Gunetik antolatu duten ikastaro berri hau abiatzear da. Saioak, otsailaren 11, 18 eta 25ean izango dira, 17:30-19:30 artean Potxoenean. Elena Jimenez Sexu Aholkularitza Guneko arduradunak bideratuko duen ikastaroan apuntatzeko: sexuaholku@usurbil.net / 679 919 516 / 943 377 110

### Langile bat, larriki zaurituta Luzuriagan

Alduntzar enpresako 38 urteko errumaniarra da, aurreko astean Luzuriaga enpresan larriki zauritutako langilea. "Makinen prebentzio lanetan ari zela lubaki batera erori zen eta zainketa intentsiboetako unitatean dago egoera larrian", LAB sindikatuak berri eman duenez. Argitzeke daude oraindik, ezbeharraren nondik norakoak.

### Otsailaren 22an, 1956koen kinto afaria

Otsailaren 22rako antolatu dute otordua, Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik egongo da hilaren 21era arte, 1956an jaio ziren herritarrentzat.

Afarirako apuntatzeko honako telefono zenbakira deitu dezakete: 648 755 316 (Guillermo Tapia).

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Ana Aizpurua.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Aritz Gorriti**

# Eman eskua… ekainaren 8an

Bostekoa, eskua emateak a ze nolako indarra eta esanahia duen. Ze adierazgarria izan litekeen sarritan. Izan liteke, lan kontuengatik, sentimendu gutxirekin eta edukazioz eskua ematea, gehiagotan ikusi nahi ez zenukeen aurreko horri. Edo txikitan, bihurrikeriaren bat egin duen haurraren gurasoak, alaba edo semeari, laguna mindu duelako eskua emateko exijitzea, barkamen moduan.

Baina egoera batzutan, zenbat kostatzen den eskua ematea! Batez ere, bi lagunen arteko gaizki ulertu, arazo, gatazka bat tarteko dagoenean. Korapiloak askatu eta aro berri bati ekiteko urrats garrantzitsua, sinbolikoa eta begi bistarako ikusgarria da halakoetan eskua ematea. Konponbidearen hasiera. Eskua emateak, norberak arazo horretan izan duen partea, erantzukizuna, ardura onartzea dakar, eskua ematen ari zaionaren aurrean. Sentitzen ari den hori "esku-bidez" agertzea. Eta onartzen du baita, barkamen moduan beste norbait eskua ematen ari zaiola, eta beste aldeak ere antzeko ariketa egin duela.

Batzutan eskua emateak hainbesteko indarra du… Eskuekin helduta daudenek badakite, euren keinuak ez duela atzera bueltarik. Iraganetik ikasi beharrekoa ikasi dutela, eta aurrera begira direla. Beste batzutan eskua emateak, agian atzera buelta izan dezake gero. Bai, izan liteke. Baina berriz ere, aurrerago eskua emateko bidea irekita geratuko da ziurrenik.

Eskua emateak zer nolako indarra duen, maitasun istorio bat biziitzen ari den bikote bat eskua emanda dagoenean, babes eske haurtxo batek ama edo aitaren eskua heltzeko galdegiten duenean, laguntza behar duelako eskua luzatzen duen horri eskua hartzen zaionean… Eskuak ditugu askotan elkartzeko, lotzeko, batzeko, elkarren arteko konexio bideak. Eta konexioa gauzatzen denean, hor sortzen den energia, indarra apurtezina da.

Eskua eskuarekin, eskua eskuari lotzeak, elkarlana, laguntasuna, anaitasuna sinonimo bihurtzen ditu. Eta esku bat beste bati lotuta, eta horrek beste bati… Eta hala eskuz esku katea osatuz, pentsa zenbat biderkatu litekeen indar hori. Horregatik, ez dut zalantzarik zer nolako indar erakustaldia egingo duen herri honek, ekainaren 8rako Gure Esku Dago bilguneak antolatu duen giza-katean. Hunkigarria eta ahaztezina izango dela, zalantzarik ez. Eskua ematea batzutan kostatzen bada, oraingoan, eskua elkarri emateko erraztasun guztiak jarri dizkigute, erabakitze eskubidearen aldeko ekimen honekin. Esku emate hau ondo etorriko zaigu denoi. Ziur. Beharra bada, eta gainera, urte luzez herri honek aldarrikatu duen eskubidea errespetatu eta gauzatua izaten hasteko abiapuntua izan daiteke.

Ekainaren 8an beraz, Durangotik Iruñara, 123 kilometrotan, milaka lagun elkarri eskua emanda. Lotuta, batuta, herri gisa. Hor sortuko den indarra, energia ia nork hausten duen. Inork ere ez noski.

**Aritz Gorriti** | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

# Ikastetxeetako aurre matrikulazio epea zabalik

Otsailaren 3az geroztik irekita dago aurre matrikulazio epea Udarregi Ikastolan, baita Aginaga eta Zubietako Eskola Txikietan ere:

**Udarregi Ikastola**
Otsailaren 3tik 14ra luzatuko da 2014-15 ikasturterako matrikulazio kanpaina. Izena emateko, aurrez hitzordua eskatu behar da, Udarregiko idazkaritzara deituta: 943 361 216. Argibide gehiago telefono zenbaki berean jaso ahal izango dira edo www.udarregi.com web orrian. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Udalak egindako bizikidetza ziurtagiria, familia-liburuaren kopia, guraso NANaren kopia, matrikulatu beharreko ikaslearen Gizarte Segurantzako txartelaren kopia eta kontu korronte baten 20 digituak.

**Aginagako Eskola Txikia**
Ordutegi honetan eman ahalko da izena Aginagako Eskola Txikian: 9:30-16:30 artean, Aginagako Erriberako kalea 7 zenbakidun eraikinera gerturatuta. Hauexek dituzue bestela, ikastetxearekin harremanetan jartzeko beste bideak:
Telefono zenbakia: 943 372 044.
Fax zenbakia: 943 372 044.
E-posta: 012261aa@hezkuntza.net

**Zubietako Eskola Txikia**
Zubietako Eskola Txikiarekin hartu emanetan jartzeko bideak, hauek dituzue:
Telefono/Fax: 943 372 931.
E-posta: 012219aa@hezkuntza.net edo zubieta@eskolatxikiak.org (gurasoen helbidea).
www.zubieta.eskolatxikiak.org

Bi guneotan ere otsailaren 3tik 14ra luzatuko da hurrengo ikasturterako matrikulatzeko epea.

## Bihurri ludotekaren oharra bazkideei

Matxura larri bat izan zuten duela aste batzuk. Noiz arte iraungo duen ez dakitenez, "aurretik ezarritako 15 euroko kuota 10 eurotara jaistea erabaki da". Jada ordainduta dutenek, ludotekakoekin harremanetan jar daitezela, diru itzulera egiteko. Eskaera hori egin nahi dute ohar honen bidez. E-posta hau dute gurasoek eskura: bihurriludoteka@gmail.com

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.
Hurrengo alea: otsailak 14. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 10.

# Udalbatza bat eginda, emakumeen autonomiaren eta erabakitzeko eskubidearen defentsan



Emakumeen eskubideen aldeko defentsan, aurreko astean aho batez azaldu zen udalbatza plenoa.

Espainiar Gobernuko Ministroen Kontseiluak iragan abenduaren 20an onartu zuen "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" Lege Organikoaren aurreproiektua gaitzetsi zuen Usurbilgo Udaleko udalbatza osoak, aurreko astean burutu zen osoko ohiko bilkuran. "Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarrizko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboen aurka". Hala dio, EH Bilduk eta Hamaikabatek batera osoko bilkuran udalbatzari aurkeztu zioten testuak. 13 zinegotziek aho batez onartu zuten mozioa.

Argi dio mozioak, "PPren gobernuak, jaio ez denaren eskubideak defendatzearen aitzakian, emakumeen eskubideak zapaldu nahi ditu, emakumeek bizitzea merezi duen bizitzak izateak ezer gutxi kezkatuta". Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako erasotzat jotzen duten aurreproiektuaren aurrean, zortzi puntuko mozioa onartu zuen Usurbilgo Udalak urtarrilaren 28an, aho batez:

1-PPk aurkeztutako "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.

2-Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.

3-Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala berma dezala.

4-Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objekzioa arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duen eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.

5-Udal honek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarrizkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeko ahalmena izan dezaten.

6-Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.

7-Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarrizko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontraerreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.

8-Honako pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardoni eta Madrilgo kongresuko eta senatuko talde parlamentari guztiei helaraziko zaie.

## Andoni Atxega zinegotziaren agurra

2011n abiatu zen legegintzaldi honetan EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile lanak egin dituen udal ordezkariarentzat, urtarrilaren 28koa izan zen bere azken osoko ohiko bilkura. Zinegotzi kargua utzi baitu. Azken udal hauteskundeetan, Atxegaren ondoren, EAJ-PNV-ren hautes zerrendan bigarren aurkeztu zen Josune Urkolak ordezkatuko du aurrerantzean. Zinegotzi aldaketarako tramitazioa abiatu du Udalak, eta ezustekorik ez bada behintzat, Urkolak berak parte hartuko du jada, hurrengo osoko bilkuran.

**Udalbatzaren esker ona**

Udalbatzaren izenean, Mertxe Aizpurua alkateak eginiko lana eskertuz, gainerako udal taldeekin izan duen harreman onagatik zorionduz eta aurrera begira zorte ona desioz agurtu zuen EAJ-ko ordezkaria. Atxegak udal jarduna bere bizimoduarekin batera ezina zaiola adierazi zuen eta horregatik zinegotzi kargua uztea erabaki zuela. Azken hitzokin, udalbatzako gainerako kideak agurtu nahi izan zituen.

## Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Usurbilgo Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzu kontratua 2015eko urtarrilaren 1era arte luzatzea erabaki zuen udalbatzak aho batez, azken osoko ohiko bilkuran. 2012an 4 urterako kontratua sinatu zen, baina urtez urte berritzeko aukerarekin.

Kontratua berrestea udalbatzari dagokionez, horixe egin zuten urtarrilaren 28ko osoko ohiko bilkuran; zerbitzua beste urtebetez luzatzeko proposamena aurkeztu eta aho batez berretsi.









# Joseba Tapia: “Tximelaren barne bakarrizketak



“Tximela kapitainaren izarrak” diskoa zuzenean aurkeztuko du Sutegin, otsailaren 16an igandea. Argazkia: Kepa Gonzalez.

*Rezola mekanikoa zen gerra aurre hartan, baina kapitain izendatu zuten frontean, hiru izar hogeita bat urterekin.* Hala adierazi digu Joseba Tapiak. Preso zutela, bertsoen bitartez betikotu zituen barruko saminak. Joseba Tapiak, oraintsu, kantura ekarri dituenak.

**NOAUA! Bertso hauekin deskubrituko dute askok Luis Rezola Tximela. Beraz, ezer baino lehen, nor izan zen *kantari kristonak hartuaz* ageri dena? Eta zeintzuk, Tximela kapitainaren izarrak?**

**Joseba Tapia.** Tolosako gazte bat, Francoren altxamenduak harrapatu eta faxismoari aurre egiteko apuntatu zena boluntario. *Lenago ill* batailoian ibili zen batez ere, Gorbeian eta Oizen, borroka gogorretan. Santanderren errenditu eta kartzelara. Dueson idatzi zituen bertso hauek. Rezola mekanikoa zen gerra aurre hartan, baina kapitain izendatu zuten frontean, hiru izar hogeita bat urterekin. Gazteena izan zen izardunetan. Dudarik gabe, kementsua eta burutsua izango zen aldi berean. Bizi arteko kartzelaldia eman zioten. Hiltzekoa eman ez ziotenean pozik.

> **JOSEBA TAPIA**
>
> ***Tximela “Lenago ill bataiIoian ibili zen batez ere. Santanderren errenditu eta kartzelara. Dueson idatzi zituen bertso hauek”***

**Nola iritsi da Tximela zure kantuetara? Bibliografian erreferentzia bat aipatu duzu, *Bakardadeko ametsak I* (Auspoa, 1989). Liburu hori izan al da disko honen pizgarri nagusi?**

Bai, halaxe da, liburu horrek eraman ninduen Tximelarengana. Bizipen gogor batzuk agertzen zituen, egoera garratz baten testigantza. Bertso ederrak, kantagarriak, gogorrak, umorekoak... Bertso formatuan gehienak, baina tartean irregularrak eta ezohikoak, bai luzeran bai hizkeran. Bertsotik haratago zihoazenak. Interesgarriak erabat. Pentsatu nuen disko baterako nahikoa gai eta pisu bazutela bertso hauek eta musika jartzeko lanetan hasi nintzen.

**Ziegaren iluna, gerraren ankertasuna, gose garaia, etxekoen oroimina... Baina lerro artean, bada irmotasun keinu bat. Eroriaren duintasuna ere badakar bertso-sorta honek. Eta bertsoen bitartez, borrokaren berri ematen jarraitzeko borondatea. Atxilo garaian, kantua/bertsoa zen Tximela kapitainak zuen arma bakarra, ezta?**

Kartzela barruan ez zen giro izango; fusilamentuak, gosea, metaketa, gaixotasunak... herioa izango zen. Bertsoak idazteko premia larria izango zuen. Ondorengoei gertatuaren berri ematea, injustiziaren handia kontatzea izango zen Tximela kapitainaren borroka berri hau. Familikoei entzunda dakit zatika ateratzen zituela bertsoak. Gero zatiak bildu eta osatzen ibili omen ziren bilduma egiteko.

**Baten batek pentsa dezake, “disko honen bitartez iritsi zaio justizia poetikoa Tximelari”. Ala aurretik, bertso munduan ba al zuen Tximelak sonik edo oihartzunik?**

Bai eta ez. Hasteko, Antonio Zavalak haren bertsoak argitaratzeko adina interes izan zuen. Bestetik, Bertsolari Elkarteak omenaldi bat ere eskaini zion beste batzuekin batera, hil ondoren egia esan. Oskorri taldeak bertso sail bat musikatua zuen nik baino lehen, Pub Ibiltaria bilduman argitaratua. Hortik aparte, Tolosaldean ezaguna zela esango nuke bertso idazle modura. Baina egia da merezitako omenaldia dela disko honek Tximelari egiten diona. Osorik bere letrekin osatua izanda, bestelako oihartzuna hartu du haren memoriak.

# k soiltasuna behar zuela pentsatu nuen”

**NOAUA! Instrumentu gehiagorekin loratu zitezkeen Tximelaren kantu hauek. Baina soiltasunera jo duzu. Akaso biluztasun giro horretan, indar gehiago hartzen dutelako bertso hauek, ezta?**
**Joseba Tapia.** Nik ere hala uste dut. Nahiz eta kartzela jendez betea egon eta inguruan seguruen lagun asko izan, kartzelak bakardadea irudikatzen du, lau pareten artean giltzapetuak sufritzen duena. Presoak bere buruarekin duen drama eta degradazio fisiko eta psikologikoa.

Tximelaren barne bakarrizketak, ezkutuko lana musikara ekartzeko, soiltasuna behar zuela pentsatu nuen. Trikitixa arinegia egin zitzaidan. Hargatik gitarrarekin soilik kantatzeko gogoa.

Gero txeloaren aukera ere baliatu nuen, zenbait une dramatiko indartzearren.



**Disko berria gitarrarekin ondu du eta horrela dabil zuzeneko emanaldietan ere. Argazkia: Kepa Gonzalez.**

**Diskoa argitara eman zenuenetik hona, emanaldi batzuk eskaini dituzu dagoeneko. Nola joan dira saioak? Eta nola sentitu zara, soinu txikirik gabe, gitarraren sei zainen artean?**
Beharbada jendeari arraroa egingo zaio nire gorputza beste tresna batek tapatzen ikusita. Niretzat ez da horren arraroa, ohitua nago aspalditik gitarrarekin. Ez publikoki, baina aspertu batzuk hartutakoa naiz nire ziega partikularrean.

> JOSEBA TAPIA
>
> *“Niretzat ez da horren arraroa, ohitua nago aspalditik gitarrarekin”*

Jendaurrean eroso sentitzen naiz, eta ahotsak leku gehiago hartzen du. Orain artekoetan jendea serio eta interesatua sumatu dut. Ezagutzen ez nuen publiko zatitxoa ere bildu dudala esango nuke.

## “Luis Fernandez eta biok irtengo gara oholtza gainera”

**NOAUA! Sutegira, beraz, “errodaia” eginda iritsiko zara. Nolakoa izango da Usurbilen eskainiko duzun kantaldia?**
Luis Fernandez eta biok irtengo gara oholtza gainera, txeloa eta gitarra soilez. Kantaldia eskainiko dugu, kantua aldarrikatuko. Tximelaren lanen berri emango dugu, eta bide batez labetik atera berriko disko batean bilduak daudela gogoraraziko diegu usurbildarrei...

Aurreko astean iragarri genuen bezala, 1937an Tximelak Duesoko kartzelan idatzitakoak eskainiko ditu Sutegin. NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik arituko da.




**Disko berriko azala da hauxe.**

### Joseba Tapia, otsailaren 16an Sutegiko auditorioan

- Noiz: otsailaren 16an igandea.
- Ordua: 19:00etan.
- Non: Sutegin.
- Sarrerak aldez aurretik: 6 eurotan (Txiribogan eta NOAUA!ko egoitzan).
- Sarrerak egunean bertan: Sutegiko leihatilan, baina 8 eurotan.
- NOAUA!ko bazkideei eskaintza: 5 eurotan erosi ahal izango dute sarrera (bazkide bakoitzeko, bakarra). Baina kasu honetan, soilik aldez aurretik eta soilik NOAUA!ko egoitzan.

# Usurbilgo Udala ere, Espainiako bandera jartzera behartua

Beste hainbat erakunde bezala, otsailaren 3rako, hau da, astelehen honetarako Usurbilgo Udala ere Espainiako bandera jartzera behartu dute Espainiako Gobernuko ordezkaritzaren errekerimenduz lehenik, eta epai bidez gero. Gertaera hauen harira, adierazpena adostu dute, Usurbilgo EH Bildu, Hamaikabat eta EAJ-PNV-k. Herritarren borondatearen aurkakotzat jotzen duten inposaketa honen aurrean, Usurbilgo Udalak etxeko balkoi eta leihoetan ikurrinak zintzilikatzera deitzen ditu herritarrak.



**Dagoeneko udaletxeko balkoian da bandera, besteekin batera.**

Etxean ikurrina faltan duenak, Usurbilgo Udalak eskuragarri jarri ditu oihal zuri, gorri, berdeak. "Udaletxetik herritar guztiak animatu nahi ditugu balkoietan ikurrinak jartzera. Inposaketaren aurrean gure ikurra zein den argi adieraz dezagun!", adierazi dute. Ikurrinaren bat behar duenak, zazpi guneotan ditu eskuragarri:

- Udaletxeko erregistroan.
- Udal liburutegian.
- Kiroldegian.
- Artzabal tabernan.
- Aginagako Arrate egoitzan.
- Santueneko zahar egoitzan eta auzo elkartean.
- Zubietako Herri batzarrean.

# Ikurrina zintzilikatzeko deia egiten dute EHBildu, Hamaikabat eta EAJ alderdiek

Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak egindako errekerimenduaren ondoren eta 527/2013 epaiaren bidez, Usurbilgo Udala otsailaren 3rako Espainiako bandera jartzera behartu dute, herritarren borondatearen aurka. Epaia betetzerakoan, Usurbilgo Udalak (EHBildu, Usurbilgo Hamaikabat eta EAJ-PNV) ondorengo adierazpena helarazi nahi die herritarrei:

Herriak aukeratzen ditu bere ikurrak, bereak egiten ditu eta horregatik dira herriaren ikur. Aldiz, legearen indarrez inposatutakoak badira, orduan, inposizioaren ikur bihurtzen dira.

Espainiako bandera zigorraren mehatxupean inposatutako sinboloa da gure erakundean. Herritar gehienon nahiaren aurka ezarri eta herritarren ordezkarien erabakimenaren kontra jarriko da. Espainiako banderak ez ditu usurbildarrak ordezkatzen eta inposaketaren bidetik bakarrik ikusiko dute ikur hori gure herrian. Ez ditugu banderak eta koloreak gutxiesten. Aitzitik, ordezkatzen dituzten lurraldeetako ikur izatea zilegi dela deritzogu. Baina, era berean, argi dugu nongoak garen eta zerk ordezkatzen gaituen.

Hau guztia kontuan hartuta, Usurbilgo Udalak herritar guztiei dei egiten die etxeetako leiho eta balkoietan ikurrina zintzilikatzeko. Era berean, Madrildik datorren inposaketa hau mantentzen den bitartean zintzilikatuta edukitzeko deia luzatzen die, Usurbilen herritarrek berea sentitzen duten ikurra zein den argi adieraziz.

Usurbilen, urtarrilaren 29an

**EHBildu, Hamaikabat eta EAJ-PNV**

## Dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da

Lau dirulaguntza deialdiak batera egin ditu Usurbilgo Udalak. Kulturakoak, Ongizatekoak, Kiroletakoak eta Ingurumenekoak. Lau deialdietako oinarriak dagoeneko argitara eman dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eskaerak egiteko epea 20 lan egunetakoa izango da. Astelehenean eman ziren argitara, beraz otsailaren 26a izango da dirulaguntza eskaerak aurkezteko azken eguna.

- Kulturarako dirulaguntza partida 80.000 eurokoa izango da, egitasmo ezberdinen artean banatzeko.
- Kirol elkarteen artean, 45.000 euro banatuko dira dirulaguntzetan.
- Ingurumenari lotutako dirulaguntzetarako, 3.000 euro aurreikusi dituzte.
- Eta Ongizateko dirulaguntzetara, 10.500 euro bideratuko dira.

Deialdi bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa eta eskaera orria eskuragarri dituzue Udaleko webgunean edota Udaletxean bertan. Kultura arloko deialdiaren inguruko oinarriak eta dokumentazioa Usurbil Kultura webgunean ere eskuragarri ipini dituzte.

"Usurbilgo Udalak herritarrek eta eragileek aurrera eramaten dituzten jarduerak eta egitasmoak diruz laguntzeko apostua egin du aurtengoan ere", udal iturriek aditzera eman digutenez. "Eta dirulaguntzak mantentzeko irizpidea jarraitu du".

Kontuan izan epea: otsailaren 26a (hori barne) izango da eskaerak aurkezteko azken eguna.



**Kultura, Kirola, Ongizate eta Ingurugiro arloko deialdiak egin dira batera.**







# SAGAR-EKOIZLEENTZAKO PRESTAKUNTZA

**Datak:** otsailak 15, martxoak 1, martxoak 8, maiatzak 10, ekainak 14, irailak 13
**Ordutegia:** 9:30-13:30
**Irakaslea:** Aitor Etxeandia (Sagarlan)
**Helburua:** sagarrondoak landatzeko eta inausteko oinarrizko teknikak eta sagarrondoen zaintza lantzea
**Hizkuntza:** euskaraz
**Metodologia:** teoriko-praktikoa
**Matrikula:** 36 €
**Non:** klase teorikoak, ezagutza maila guztiei zuzenduta, Potxoenea Kultur Etxean



**Izen-Ematea:**
Fraisoro Eskola: 943692166
fpefraisoro@hazi.es/ www.hazi.es
Alkartasuna Kooperatiba: 943361114
Atallu industrialdea 26, Usurbil

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

# Joseba Tapiaren
## TXIMELA KAPITAINAREN IZARRAK
*lan berriaren aurkezpena*



Joseba Tapiak disko berria argitaratuko du aurten:
TXIMELA KAPITAINAREN IZARRAK
[illegible]

**Otsailak 16, IGANDEA**
**19:00 SUTEGIko Auditorioan**

**Sarrera:** Aldez aurretik erosita 6€ (Txiribogan eta Noaua!n). Egunean bertan 8€. Bazkideek 5€tan Noaua!n aldez aurretik.

noaua

# Gidabaimena euskaraz egiteagatik sarituak




**Onintze Kamino Landa usurbildarra izan da sarituetako bat.**

400 euroko hamaika sari zozketatu zituzten astelehen eguerdian Astigarragako kultur etxean, Buruntzaldeko sei udalek; hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbilgoek hain zuzen. Iaz, gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz prestatu eta gainditu zuten eskualdeko hamaika autoeskoletako ikasleen artean burutu zuten zozketa. Hamaika lagun saritu dituzte guztira. Eta bakoitzak 400 euroko ordainsaria jasoko du, gidabaimena euskaraz prestatu eta gainditu izanaren ordainetan.

Zozketa udalerrika egin zen, iaz gidabaimena euskaraz prestatu eta gainditu zuten ikasle guztien artean. Usurbilen autoeskola bakarra izanik, herritar batek irabazi ditu 400 euroak: Onintze Kamino Landak. Zorionak!

## 135 LAGUN, EUSKARAZ EGIN ZUTENAK IAZ

Pozik agertu ziren, gidabaimenari loturiko ikasketak euskalduntzen diharduten Buruntzaldeko udal eta autoeskolak. Azken hiru urteotan, gidabaimena euskaraz prestatu eta gainditu duten ikasleen kopurua laukoiztu dela berri eman zuten zozketa egunean. 2010ean 34 lagun izan ziren. 135 lagun iaz, Buruntzalde osoan; 21 andoaindar, Astigarragako 7 lagun, 59 hernaniar, 28 lasartear, 12 urnietar eta 8 usurbildar.

Buruntzaldeko udalak pozik dira azken urteotan gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egin duen ikasle kopurua nola hazi den ikusita, baina datuok hobetu nahi dituzte. Horregatik, egitasmo honen aldeko apustua egiten jarraitu asmo dute. Kanpaina berri bat abiatuko dute datorren maiatzean.

## 11 SARITU BURUNTZALDEAN

Otsailaren 3an, Astigarragako kultur etxean, Buruntzaldeko udal ordezkari, teknikari eta autoeskoletako kideek zozketaren berri eman zuten eta 11 sarituen artean, Onintze Kamino Landa usurbildar gaztea dago, Mujika autoeskolan ikasitakoa.

## Inauteri Festako gaia: Erdi Aroa

Erdi Aroraino jauzi egingo dugu martxoaren 1ean. Jaso diren proposamenen artean, hauxe duzue aurtengo Inauteri Festarako hautatu den mozorrotzeko gaia. Erabakia iragan astean zenbait herri eragileetako kideek NOAUA!ko egoitzan eginiko bileran hartu zuten.

Mozorroa egiteko hilabeteko tartea dago orain.



## Errigora ekimena, Argiak saritua

Usurbilen jende askok egin zuen bat Errigoraren kanpainarekin. Eguberrien atarian, Nafarroako Erriberako produktuekin egindako saskiak jarri zituzten salgai. Errigorakoentzat izan da, hain zuzen, publizitate kanpaina onenaren saria azken Argia Sarietan. Errigorako kideek "auzolan ekimen honetan sinistu eta inplikatu" direnak zoriondu nahi dituzte. "Erribera eta Errigora, herria egin daitekeela sinetsi eta Nafarroa hegoaldeko errealitatea mahai gainean jarriz, ilusioz betetako dinamika bat martxan jartzea lortu dugu. Parte hartze bikaina, giro ederra, elikagai goxoak, nafar ekoizleei eskari itzela... eta gainera 112.000 euroko ekarpen ekonomikoa lortu dugu hiru euskara eragilerentzat".



**Argia Sarien "podiuma".**

## Koadrila bat, azken Tipi-Tapako saritua

Alex Apaolaza, 3387 zenbakidun txartelaren jabeari egokitu zaio, joan den igandeko Tipi-Tapa amaieran Artzabalen ospatu zen zozketako 150 euroko erosketa balea. Koadrilako lagun batekin atera zuen Apaolazak sarituaren argazkia. Pozik ziren biak. Seiko lagun taldean ateratzen omen dira hilero lehen igandeetan ibilbide gastronomikoa osatzera. Egokitu berri zaien 150 euroko balea hain zuzen, koadrilan otordu batekin ospatu asmo dutela adierazi digute. Gainerakook gogoan izan; hurrengo Tipi-Tapa: martxoak 2.



**Artzabalen jaso zuten saria.**

# Ekainaren 8ko giza-katerako indarrak biltzen




**Aurreko asteburuan, herritar ugariren babesa jaso zuen Gure Esku Dago ekimenak.**

Ekainaren 8an, Durango Iruñearekin lotuko dute milaka euskal herritarrek, eskuz esku, erabakitze eskubidearen aldeko giza kate batekin. Lau hilabete barru, "Gure Esku Bidea" aldarripean ospatuko den ekimenerako, gutxienez 50.000 lagun bildu nahi dituzte antolatzaileek. Tartean, 400 usurbildar elkartu nahi ditu, udalerri honetan giza-katerako prestaketa lanak bideratzen ari den Gure Esku Dago bilguneak.

Giza-katerako girotze lanak iragan igandean abiatu ziren, aipatu lan taldeak Sutegi aurrean antolatu zuen jendaurreko lehen ekitaldiarekin batera. Ekainaren 8ko giza-kateari babesa adierazi zioten usurbildarrek. Goiko irudian ageri diren moduan; eskuak altxata, eta erabakitze eskubidearekin bat eginez, "Gure Esku Bidea" aldarria babestuz.

> GURE ESKU DAGO
>
> ***"Ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katerako 400 usurbildar batu nahi dira"***

### IZEN EMATEA IREKITA

Hamarnaka herritarrek, giza-katerako izena ere eman zuten, Gure Esku Dago bilguneak kultur etxe atarian jarri zuen mahaian. Apuntatu ezin izan zuenak, lasai. Datozen asteotan, izena emateko aukera izango baita. Esandakoa, ekainaren 8ko giza-katean parte hartzeko aurrez apuntatu beharra dago. Herritar bakoitzak giza-kateko metro bat erosteko aukera du 5 eurotan. Trukean, motxila eta zapi bana jasoko ditu. Apuntatu direnen zerrenda, Sutegiko erakusteta aretoko erakusleihoan egongo da ikusgai. Gogoan izan, Gure Esku Dago bilguneakoen erronka, gutxienez 400 usurbildarren parte hartzea lortzea dela. Sutegiko erakusleihoan beraz, erabakitze eskubidearen alde izena eman duten herritar kopurua hazten ikusiko dugu hurrengo asteotan.

Ekimen berri honetan parte hartzera deitzen dute. "Ez dugu asko eskatzen: nazioarteko legeek nazio guztiei aitortzen diena besterik ez. Erabakitzeko eskubidea. Zergatik ez dugu, orduan, dagokiguna eskatuko? Saiatzen ez denak hasieratik ixten dizkio bere buruari ate guztiak. Beraz, hartu zuen agendak, eta gorriz bildu ekainaren 8a. Herritarrok badugu zeresana gure etorkizuna denean jokoan dagoena", adierazi zuten iragan igandean, Gure Esku Dago bilguneko kideek.

## Usurbildarrak, Uharte-Arakilen

Ekainaren 8ko giza-katean, usurbildarrentzako parte hartzeko eremua zein izango den ere zehaztua dago jada; Durangotik Iruñearako bidean, usurbildarrek Uharte-Arakilera gerturatu beharko dute.

## "Gazta zati bat" filma Sutegin

Datozen hilabeteotan giza-katea girotzen joango da Usurbilen sortu berri den Gure Esku Dago bilgunea. Momentuz, larunbat honetan, otsailak 8, "Gazta zati bat" proiektatuko dute, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Sutegin.



**Jon Maiak zuzendu zuen filma.**

# %15eko deskontua, txotx garaian

Apirilaren 12ra arte, ostiraletan sagardotegian bazkaldu edo afaldu, eta landetxe, ostatu edo hotelean lo egiteagatik, %15 merkeago. %15eko deskontua bai otorduan, baita lotarako eginiko erreserban ere. Hauxe duzue, estreinatu berri dugun 2014ko txotx garai honetarako, eskualdeko 8 sagardotegik eta 17 ostatuk, Behemendi Landa Garapenerako Elkartearekin eta Udalekin batera, elkarlanean, Usurbil, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietara datozen bisitarientzako prestatu duten eskaintza erakargarria.


Pasa den astean iragarri zuten kanpaina. Usurbilgo bi sagardotegi eta bost aterpe animatu dira.

Turista mordoa erakartzen duen Gipuzkoako hiriburu ondoan kokatua egonik, Donostiarekiko gertutasun horrek, eta orain deskontu honekin, bezero gehiago erakar ditzaketelakoan daude. Bai urrutitik datozenak, edota baita Euskal Herriko beste hainbat txokoetatik sagardo berria dastatzera gerturatu asmo dutenak ere.

### Bi lagunentzako otordua eta egonaldia

Ostirala heldu eta egitasmo honetara atxiki den sagardotegi eta ostatuetako batean apirilaren 12ra arte erreserba egiten duenari beraz, %15 merkeago aterako zaio otordua eta loa. Promozioa aurkezteko antolatu zuten prentsaurrekoan, deskontu honen onuraduna izateko zer egin behar den azaldu zuten egitasmo berri honen eragileek. Lehenbizi ostatua aukeratu eta ostatu horrekin harremanetan jarri telefonoz, edo bestela email bat bidali. Eta noski, erreserba egin. Erreserba egiterakoan ze sagardotegira joateko asmoa duzun esan, eta sagardotegi horren inguruko informazioa eskaini. Eta kito. Ostatuan bertan, deskontu txartel bat jasoko du bezeroak. Promozioan, logela bikoitzean bi lagunentzako gau bateko egonaldia eta sagardotegiko otordu bat sartzen dira, bakailao tortila, bakailao frijitua piperrekin, txuleta, gazta, irasagarra, intxaurrak, ogia eta txotxeko sagardoa barne delarik.

> *"Beherapena aplikatzeko, bi pertsonentzako erreserba egin beharko da, bai sagardotegian baita ostatuan ere"*

Hori bai, beherapena aplikatzeko, bi pertsonentzako erreserba egin beharko da, bai sagardotegian baita ostatuan ere, eta produktu bakoitza bere aldetik ordaindu beharko da. Alegia, ostatuko egonaldi gastuak ostatuan bertan ordaindu beharko dira, eta sagardotegikoak sagardotegian. Promozio hau ostiraletarako egiten dute soilik, apirilaren 12ra arte.

### Guztira, 8 sagardotegi eta 17 aterpe

Guztira 8 sagardotegik parte hartu dute promozio berri honetan. Tartean, Arratzain eta Aginaga sagardotegiek. Baita Hernaniko Akarregi, Iparragirre, Itxas-Buru, Astigarragako Iretza eta Petritegik eta Urnietako Oianumek.

%15eko beherapena eskaintzera animatu dira baita eskualdeko 17 ostatu ere. Horietatik bost, Usurbil, Aginaga eta Zubietakoak ditugu; Aginaga Hotela, Barazar Landetxea eta Arratzain, Illumbe-Goikoa eta Zabalea Nekazalturismoak.

# Gure Pakeako bazkideen txapelketetan izen ematea, ixtear

Ostiral honetan, otsailaren 7an itxiko dute, datorren astetik aurrera ospatuko diren jokoetan izena emateko epea. Mahai joko eta mugimenduko txapelketak hain zuzen, otsailaren 11,12, 18 eta 20rako antolatu dituzte.

Saio guztiak Artzabalen izango dira, arratsaldeko 16:00etatik aurrera aipaturiko egun horietan.

Otsailaren 20an, azken jokoa ospatu eta gero sariak banatuko dira. Eta askaria dastatu ahal izango dute, ekimenotan parte hartu dutenek.

### Jokoen egutegia

Honakoa da, Gure Pakea Elkarteko bazkideen arteko joko eta txapelketen egutegia:

- Otsailak 11, asteartea: punttua.
- Otsailak 12, asteazkena: tutea.
- Otsailak 18, asteartea: musa.
- Otsailak 20, osteguna: igel eta toka jokoak. Sari banaketa eta askaria.


Gure Pakea elkarteak eskerrak helarazi nahi dizkio Rural Kutxari, bere ordenagailua elkarteari emateagatik.

# Aginagako eragileentzako lokalak, 2034ra arte errentan hartuak

Usurbilgo Udalak eta Aginagako Parrokiak 20 urterako, 2034ko urtarrilaren 31ra arteko errentamendu kontratua sinatuko dute, 90. hamarkadatik bi aldeek duten hitzarmena berritu ahal izateko udalbatzak, urtarrilaren 28an burutu zen osoko ohiko bilkuran aho bateko onespena eman ostean.



Usurbilgo Udalak eta Aginagako Parrokiak 20 urterako hitzarmena sinatu dute.

Kontratu berri honen baitan, "Usurbilgo Udalak eta Aginagako Asisko San Frantzisko parrokiak hiru solairutako eraikinaren zati bat errentan hartzea eta ematea adosten dute, errentamendu honen objektu dena honakoa izanik: behe solairu osoa, lehenengo solairu osoa eta bigarren solairu osoa, Elizatik sarrera duten, sakristia, ondoko bulegoa eta komuna izan ezik". Aipaturiko azken guneok, Parrokiak bere erabilerarako gordeko ditu. Kontratu berriak lokal guztion alokairua batu eta aurrez sinatuta zeuden errentamendu kontratu guztiak ordezkatzen ditu. Lokal guztiok errentan hartzeagatik Udalak ordaindu beharko duen hileko kuota, 1.250,60 eurokoa izango da.

**Eskola Txikia, ludoteka edota Arrate Elkartekoentzat**

Kontratuak sinatzaileen eskubide eta betebeharrak zehazten ditu, baita Udalak errentan hartuko duen solairu bakoitza zertara bideratuko den ere:

-Behe solairua: Aginagako gazteen erabilerarako lokalak eta eskola txikia.

-Lehen solairua: Lehen Hezkuntzako eskola (sarrera, komun, 3 gela, bulego eta biltegiarekin) eta jubilatuen erabilerako lokalak (taberna, sukaldea, komunak, lokala eta ile-apaindegia).

-Bigarren solairua: ludoteka, informatika gela, jubilatuen erabilerarako lokalei lotutako biltegia eta eskulanetarako jubilatuen lokala.

## Udalbatza abstenitua, Auzolan Elkarteak aurkezturiko mozioaren aurrean

Bizi dugun krisialdi egoeraren aurka, eredu berri baterantz jotzeko estrategia bat garatzea proposatzen du Auzolan Elkarteak. Eta horretarako, hausnarketa sustatu eta herritar zein eragileak bilduko dituen parte hartze prozesu bat antolatzea herrian. Horixe da nagusiki, modu orokor batean, Auzolan Elkarteak aurreko astean Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan burutu zen osoko ohiko bilkuran aurkeztu zuen mozioak jasotzen duena.

Udal talde guztiak abstenitu ziren testu honen aurrean. Usurbilgo Udalak alor honetako estrategia definitua eta landua duela gogorarazi zuen Mertxe Aizpurua alkateak. Usurbilgo udalerria, eskualde mailako plangintza batean murgildua dagoela, beste bost udalerrirekin lankidetzan: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietarekin hain zuzen.

Plangintza honen baitan, udal, eragile eta herritarren arteko elkarlana sustatuko dela adierazi zuen alkateak. Eta prozesu hori zabaltzean, Auzolan Elkarteak ere ekarpenak egiteko aukera izango duela. Ildo beretik, gai hauei buruz hitz egin eta alor honetako plan estrategikoa diseinatzeko bilgune bat sortzeko asmoa dagoela iragarri zuen Alaitz Aizpurua zinegotziak.

Parte hartzean oinarrituko den egitasmoa, gutxi barru hautetsiei aurkeztekotan direla iragarri zuen. Inguruotan oraindik ez dugun etorkizunerako Garapen Agentzia diseinatzen hasi nahi dute bailarako udalek.

**Abstentzio osoa**

Edozein kasutan, Auzolan Elkarteak mozioan proposaturiko hainbat punturekiko adostasuna adierazi zuten azken osoko bilkuran EH Bilduko ordezkariek, Joxe Ramon Furundarenak gogorarazten zuen moduan. Ekarpen asko aintzakotzat hartzekoak iruditzen zaizkio, baina ez du uste Auzolan Elkarteak Usurbilerako planteatzen duen parte hartze prozesua eraginkorra izango litzatekeenik, osoko bilkurara aurkezturiko dokumentua orokorregia iruditzen baitzaio.

Aipaturikoa, udalbatza aho batez abstenitu zen Auzolan Elkarteak aurkezturiko mozioaren aurrean. Udaletik halere, alor honetan aurrera begira burutu asmo dagoen lanketan parte hartzera gonbidatu zituzten Auzolan Elkarteko ordezkariak.

### Irisgarritasunari loturiko ordenantza berria du Udalak

Eraikinen irisgarritasuna hobetzea helburu duen araudia ere aho batez onartu zuten azken osoko ohiko bilkuran. Bere garaian, hasieraz onartu ostean, bi alegazio izan ditu jendaurrean egon den epean.

Bi erreklamazio hauei eta aipatu udal ordenantzari ere behin betiko onarpena eman zion udalbatzak aho batez, aurreko astean. Udal ordezkariek hartutako erabakiaren berri emango dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Bertan argitaratuko dute udal ordenantza, bere osotasunean.

Herrialde mailako aldizkariak araudi berria plazaratu eta 15 egunera jarriko da indarrean.

# Datorren astean Oriako Jaitsiera, inoizko partehartze handienarekin

Duela hogei urte abiatu zen Oriako Jaitsiera. Eta geroztik, gora egin du etengabe partehartzeak. Aurtengo edizioak, hogeigarrenak hain zuzen, marka guztiak gaindituko ditu. 73 ontzik eman dute izena eta 1.017 arraunlari arituko dira Oriako errioan, arraunean. “Inoiz ez da horrela partaidetzarik izan”, antolaketa batzordetik aditzera eman digutenez. Datorren astean, beraz, arraun festa ederra Orian barrena. Otsailaren 15ean larunbata, arratsaldeko 16:00etan hasita.

Ospe handia erdietsi du Oriako Jaitsierak. Aurtengoak, ordea, marka guztiak hautsiko ditu. Ohi bezala, bi irteera prestatu dituzte.

Bat, laburrena, Saikolatik abiatu eta Oriora iritsiko dena. 4.000 metrokoa, emakume, jubenil eta beteranoentzat.

Bestea, 6.000 metrokoa, Mapiletik abiatuko dena. Absolutu mailako traineruentzat.

### 20 URTETAN, 10.000 ARRAUNLARI

1995etik hona, 734 ontzi (711 traineru eta 23 llagut) aritu dira Oriako Jaitsieran. Eta guztira, 10.161 arraunlarik jardun dute ibai-itsasadarrean. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, ikuskizun ederra eskainiko dute. Hauek dira aste baten faltan izena eman duten taldeak:



Arratsaldeko 16:00etan hasiko da traineru festa.

**Llaüt Mediterraneoa:** CNBadalona.
**Jubenilak:** Zumaia, Portugalete.
**Beteranoak:** Betulo (Gi-Em Mixtoa), CNAmposta, Ibaialde-Angelu, Zumaia, Fortuna, Zarautz, Arkote, Zierbena, Getxo, Deustu-Lutxana, Sestao, Pontejos.
**Emakumezkoak, absolutua:** Denia, Campello, Torrevieja, Hernani-Betulo, Orio, Zumaia, Hibaika, San Juan, Getaria-Zarautz, Ondarroa, Santoña.
**Gizonezkoak, absolutua:** Betulo, Campello, Torrevieja, CNBadalona, RValencia-UAlicante, Orio-A, Orio-B, Zumaia-A, Zumaia-B, SanJuan-A, SanJuan-B, Hibaika, Illunbe, San Pedro-A, San Pedro-B, San Pedro-C, Kaiarriba-A, Kaiarriba-B, Kaiarriba-C, Zarautz-A, Zarautz-B, Getaria, Hondarribia-A, Hondarribia-B, Deustu-A, Deustu-B, Ondarroa-A, Ondarroa-B, Portugalete, Zierbena-A, Zierbena-B, Arkote, Isuntza-A, Isuntza-B, Bermeo-A, Bermeo-B, Bermeo-C, Lutxana, Kaiku, Getxo, Elantxobe, Santoña, Camargo, Castreña-A, Castreña-B, Suances, Colindres.

### BI IBILBIDE

**4000 m.** Irteera Saikolatik. Ontzi mediterranekoentzat eta emakume, jubenil eta beteranoz osaturiko traineruentzat.
**6000m.** Irteera Mapil-Aginagatik. Absolutu mailako traineruentzat.




## Igeriketa denboraldia hasi dute gaztetxoek

Urtero bezala, “hasi da Usurbilgo gure gaztetxoen igeriketa denboraldia”, kiroldegiko iturriek aditzera eman digutenez.
Honako argazkia Hernaniko igerilekuan eginiko txapelketari dagokio, “egia esan eta aipatu beharrezko da denboraldi bikaina daramatela Usurbilgo igeriketako gaztetxoek”.


Hernanin eginiko argazkia da hau.

## Pilota partidak Aginagan

**Otsailak 7 ostirala, 19:30**
**Eskuz binaka infantil 2. maila**
Usurbil - Mundarro 2
(Jon Zumeta-
Aimar Iruretagoiena)

**Paleta goma gizonak 2. maila**
Usurbil - Batzokiko
(Josu Arruti - Xabier Murua)

## Altitoy eski proban

Asteburu honetan jokatuko da Luz sr Sauveur eta Bareges herrietan. Binaka parte hartuko dute, tartean, hauexek: Jon Rekondo eta Iñaki Rekondo, Andoni Udabe eta Imanol Zarautz, Egoitz Manterola (Orio) eta Patxi Pagola, eta Harkaitz Iparragirre eta Mikel Legarreta (Urnieta).







# Kirol zerbitzuen araudia, aldatua

Jendaurrean egon den epean inork alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu ez duenez, Usurbilgo kirol zerbitzuen araudi nagusia aldatzea behin betiko onartu da. Hala kaleratu zuen urtarrilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak.

**Kirol Patronatua desegitetik datorren erabakia**

Iazko otsailaren 12an desegin zen Kirol Patronatua, eta ordutik, kirol zerbitzuen kudeaketa Udalaren gain dago. Aldaketa honek, moldaketa gehiago ekarri ditu; lehendik, Kirol Patronatuak egina zuen Kirol Zerbitzuen Araudi Nagusia egokitzea adibidez. Proposamen hau mahai gainean jarri zuen gobernu taldeak, iragan irailaren 24an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Aho bateko hasierako onarpena eman zion udalbatzak. Gerora, udalbatzak hartutako erabakia alegazioetarako jendaurrean egon da. Baina inork erreklamaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onartuta geratu da. Usurbilgo Udaletik adierazia dutenez, kirol zerbitzuen araudian egindako moldaketak, gehienbat terminologikoak dira.



**Araudian egindako moldaketak gehien bat terminologikoak dira.**

# Irisasi BTT taldearen eskertza



Ohar honen bitartez Irisasi BTT taldeak eskerrak eman nahi dizkiete, urtarrilaren 26ko martxa ahalbidetu zuten guztiei. "Eskerrak Usurbilgo Udalari eta brigadako langile orori. Eskerrak Udaltzaingoari trafikoa moztu eta bideratzen laguntzeagatik. Eskerrak DYA-ri eskainitako bolondres lan guztiagatik. Eskerrak baita ere kiroldegiko instalakuntzak erabiltzeko aukera emateagatik. Eskerrak baita ere bai diruz edo bai hamaiketako, opari eta hainbat gauzekin lagundu diguzuen guztioi. Eta nola ez, ezin ahaztu martxako egunean, bai bidegurutzeetan, bai argazkiak ateratzen eta bai txirrindulariak animatzen egon zineten guztioi. Mila esker Hurbilago elkarteari eta herriko dendari eta tabernari guztioi. Mila esker Andatza Mendizale Elkarteko kideei eskainitako laguntza guztiagatik. Eta azkenik mila esker NOAUAri Usurbilen gure izanaren berri emateagatik. Datorren urtean elkar ikusiko dugu berriz Irisasi BTT 2015ean!", hala dio Irisasi BTT Taldearen oharrak.

## Eskubaloia Oiardo kiroldegian

**Otsailak 8, larunbata**

11:30 Infantil neskak:
Udarregi B Usurbil-Egia Bat
12:30 Infantil mutilak:
Udarregi Usurbil-Urnieta Guria Kafetegia
19:00 Senior mutilak, 2.nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil-Ereintza Aguaplast

## Futbola Haranen

**Otsailak 8, larunbata**

10:00 Infantilak: Usurbil F.T.-Amara Berri K.E.
15:30 Regionalak: Usurbil F.T.-Allerru K.J.K.E.
17:30 Kadeteak: Usurbil F.T.-Allerru K.J.K.E.

**Otsailak 9, igandea**

10:00-13:00 Alebinak, futbol eskola:
Usurbil F.T.-Danena-Amaroz

## Zumaia-Orio bidea, igande honetan Andatzakoekin batera

Igande honetan, goizeko 8:00etan finkatu dute abiatzeko hitzordua, Usurbilgo tren geltokian. 14 kilometroko ibilbidea osatzea proposatzen dute, kostaldetik barrena, hiru ordu eta erdiren bueltan.

"Itsasoari begira Askizun eta Getarian dauden mahastiak eta Andazarrateko meategietatik Zarautzeraino burdina minerala eramateko Mollarriko kargaderoa ikuskatuko ditugu ibilbidean".



**Kostaldetik osatuko dute ibilbidea. 8:00etan abiatuko dira tren geltokitik.**










## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisu bat alokatu edo salgai Munalurran. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, 2 terraza. 637 309 209.

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berritua. Tel. 699 680 265. 135.000€.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plazakoa. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Lasarten, Zumaburu auzoan, lokal bat alokatzen da. 150€ hilabetean. Erreforma txiki bat behar du. Tel. 687 348 223.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gastu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastoak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna , ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Usurbildarra naiz eta etxe bat alokatu nahi nuke inmobiliarik bitarteko izan gabe. Interesatuak deitu mesedez 661568471 telefonora.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

## MOTORRA

### salmenta, garajeak

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratukoa. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81cv. 2010eko urrikoa.25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxillergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Erizain laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago.Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzear eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro



**Zorionak Haritz!!** Otsailaren 8an, 6 urte beteko dituzu. Zorionak, ondo pasa eta muxu asko asko familiaren partez.



**Zorionak Ana!** Ondo pasa eta muxu bat Aginagako eskolakoen partez.



**Zorionak Ekhiñe!!!** Igandean 6 urte, bazkaria, txokolatada... Ondo pasa eta etxekoen partez muxuak.



**Zorionak Ander!** Larunbatean 16 urte beteko dituzu. Iada gutxiago falta zaizu adin nagusira iristeko eh!!! Ondo ondo pasa eguna eta 16 muxu handi handi familia osoaren partez!

## Heriotzak

**Felix Zabaleta Garro**
77 urterekin hil zen urtarrilaren 27an



Ohar, zorion-agur... berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketak egiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

## Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak astelehenetan 18:00-20:00)

Estetizien bat behar da Usurbilen lan egiteko, tel 943 37 19 71

Emakume euskaldun eta esperientziduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera. 635742503

## BESTELAKOAK

Euskal Herriko mapa duen domina lauburu batekin aurkitu da eliza inguruan. Urrezkoa da. Arantxa 2005-9-9 jartzen du. Norbaitek galdu badu pasa NOAUA!tik pasa.

Behor bat salgai. Zaldiz ibiltzen ikasteko oso ona, paseoetarako zein kirolerako. Deitu eta ikustera etorri: 620011889.

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Mahaspildegi elkartean bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valenciako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kiloa. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu.Miren:656742048; Alaitz:658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Telebista salgai, Sony. Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Aginagako artoa salgai . Telefonoa: 687706363

Erosi gasolina sorgailu elektrikoa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Oa botika | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| NOAUA! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak otsailak 6-otsailak 16

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 6 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32 Lasarte |
| **Ostirala** | 7 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Larunbata** | 8 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Igandea** | 9 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Astelehena** | 10 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Asteartea** | 11 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Asteazkena** | 12 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Osteguna** | 13 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| **Ostirala** | 14 | ORUE | Pl. Jaizkibel 2 Lasarte |
| **Larunbata** | 15 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Igandea** | 16 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

# Agenda otsaila

## 8 larunbata

■ **"Gazta zati bat" Sutegin.** 18:00etatik aurrera, dokumentalaren proiekzioa. Antolatzailea: Gure Esku Dago Usurbil.

## 9 igandea

■ **Andatzakoen irteera:** Zumaia-Orio. Irteera goizeko 8:00etan, tren geltokitik.

■ **Helduentzako zinea euskaraz: "Sukalde kontuak"** 18:00etan Sutegin. 5 eurotan, egunean bertan salgai.

## 11 asteartea

■ **Gure Pakea Elkarteko bazkideen arteko txapelketak.** Punttua, 16:00etan Artzabalen. Antolatzailea: Gure Pakea Elkartea.

# "Sukalde kontuak", igande honetako pelikula Sutegin

Aizpea Goenagak 2008an zuzenduriko filma ikusteko aukera duzue igande honetan, otsailak 9, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira, 5 eurotan. Usurbilgo Udalak negu parte honetarako antolatu duen euskarazko zine zikloaren baitan proiektatuko da, sukaldaritza eskola batean lekutzen den istorio hau. Protagonista, azken ikasturtean murgildua dagoen ikasle taldea izango da.



Aizpea Goenagak zuzendu zuen 2008an.

Hurrengo hileko lehen bi igandeetan eskainiko dira, Udalak antolaturiko ziklo honetako azken bi filmak; "Ahmed, Alhanbrako printzea" haurrentzat martxoaren 2an eta "Zorion perfektua" helduentzat martxoaren 9an.

# "Bateginik", Pelexen erakusketa berria

Down sindromea duten lagunengan oinarrituriko 24 margolan eta 10 eskulturez hornituriko erakusketa zabaldu du Jose Luis Elexpe usurbildarrak, Sofia Arostegirekin batera. Verdini dantza taldekoek inauguratu zuten erakusketa joan den ostiralean. Otsailaren 11ra arte Hernaniko Biteri kultur etxean ikusgai izango dira Pelexen eta Arostegiren lanak. Astelehenetik ostiralera, 18:00-20:00 artean.



Hernaniko Biterin dago zabalik erakusketa.

**'Kirolaren Irria denontzat', igandean Donostian**
Igande honetan, otsailak 9, 18:00etan 'Kirolaren Irria denontzat' ikuskizuna Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ikuskizun hau GKEF eta Irrien Lagunak taldeek antolatu dute. Urritasunak dituzten haurrek traba ugari dituzte Eskola Kirolean parte hartzeko. Takillako diru bilketa asmo honen alde izango da. Sarrerak kutxabank.es web orrian daude salgai, edota egunean bertan Victoria Eugeniako leihatilan.

## Datozenak

### Afari beganoa datorren astean egingo da

Asteburu bete ekimen izan dute Usurbilgo Gaztetxean; argazki proiekzio, kontzertu gau eta bakarrizketa saioarekin. Aurreko astekarian, ostegun honetarako, otsailaren 6rako, Usurbilgo Gazte Asanbladak afari beganoa antolatu zuela berri eman genizuen. Baina datorren astean egingo da, hilaren 13an, iluntzeko 20:30etatik aurrera Usurbilgo gaztetxean. Ohi bezala, borondatearen truke afaldu ahal izango da.



Otsailaren 13an osteguna, gaztetxean.

### Bazkideentzako sagardo barrikotea, Erroizpe elkartean

Otsailaren 15erako antolatu dute hitzordua, 14:00etan elkartean bertan. Izena emateko otsailaren 9ra arteko epea dute bazkideek. Ekimena antolatzen dabiltzan elkarteko ordezkariek jakinarazi dutenez, "menua aurrerago esango dugu baina eman izena ahalik eta lasterren, ez egon zain azkeneko momentura arte".

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL




PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# ATE IREKIAK

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**ARRASATE · OTSAILAK 8**
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**OÑATI · OTSAILAK 8**
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA · OTSAILAK 13**
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

**BILBAO · OTSAILAK 15**
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORIATZA · OTSAILAK 8**
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · OTSAILAK 8**
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center**

**DONOSTIA · OTSAILAK 13**
Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

**902 110 436**

**www.mondragon.edu/prest**


URDAiRA
Sagardotegia
astelehenak itxita
Aginaga 943 37 26 91


OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, HERNANI


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 5era
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


SAIZAR
Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak:
943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)
SAiZAR
Sagardotegia
www.sidrassaizar.com


SAGARDOTEGIA
aginaga
Hotela
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
%100 bertako sagarra
AIALDE BERRI
Tel: 943 365 031
Santuenea